

aLEKA

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2023ko urtarrila

04-05

**2023AN INDARTUKO
DIREN ALORRAK**

*Áreas que se reforzarán
en 2023*

08-09

**AURREKONTU
PARTE-HARTZAILEAK**

Presupuestos participativos

12-13


**ETXEBIZITZARAKO
AUKERA BERRIAK**

*Nuevas oportunidades de
vivienda*

15

AGENDA

¿Qué quieres hacer?





PERTSONAK ARDATZ DITUEN AURREKONTU PROIEKTUA

T

olosak 33,3 milioi euroko aurrekontua izango du aurten. Pertsonak erdigunean jartzen dituen aurrekontua, tolosarren egungo zein etorkizuneko beharrei erantzuteko, aurreikusitako proiektuak gauzatzeko eta egitasmo berriak martxan jartzeko.

Aurrekontu soziala, errealista, zorrotza, egingarria eta jasangarria; arlo soziala, ekonomikoa eta jasangarrtasuna lehenetsiz, herri kohesioa jomuga, pertsona zaurgarrienak babesteko, inor atzean utzi gabe; garapen ekonomikoa bermatzeko eta energia trantsizioaren alorrean urratsak egiten jarraitzeko.

Inbertsioen planera bideratuko dira 4,1 milioi euro, orainari erantzunez, Tolosa hobetzen jarraitzeko, eta herritarren ongizatea hobetuko duten proiektu berriak ere aurrera eramateko. Inbertsio planean jasota daude, baita ere, Tolosatzen aurrekontu partehar-tzaileen prozesuaren baitan herritarrek egindako proposamen eta lehenetsitako egitasmoak.


Tolosa cuenta con un presupuesto de 33,3 millones de euros este año. Un proyecto de presupuestos para responder a las necesidades actuales y futuras de los y las tolosarras, ejecutar los proyectos previstos y poner en marcha otros nuevos; poniendo a las personas siempre en el centro.

Un presupuesto de carácter social, realista, riguroso, factible y sostenible, sustentado sobre 3 pilares: el ámbito social, económico y la transición energética, para garantizar la cohesión social y proteger a las personas más vulnerables sin dejar a nadie atrás; promover el desarrollo económico y seguir dando pasos hacia un municipio más sostenible.

El Plan de Inversiones cuenta con un presupuesto de 4,1 millones de euros y contempla actuaciones y obras para seguir mejorando Tolosa y el bienestar de las y los tolosarras, así como nuevos proyectos de cara al futuro para que Tolosa siga avanzando como municipio. Asimismo, se han recogido en dicho plan las propuestas realizadas y los proyectos priorizados por ciudadanía en el proceso de presupuestos participativos de Tolosatzen.

AURREKONTUAREN BANAKETA

Kalitatezko zerbitzuak eta arreta bermatzea helburu duen aurrekontu proiektua



Guztira 33.306.422 € en total

PRIORIDADES



ARLO SOZIALA

Tolosarras en el centro

Pertsona zaurgarrienak babestea; herritarren ongizatea bermatzea, zerbitzuen etengabeko hobekuntzan, inor atzean utzi gabe. Herri kohesionatuago eta berdinzaleago baten alde lanean.

Proteger a las personas más vulnerables, garantizar el bienestar de la ciudadanía, en la mejora continua de los servicios, sin dejar a nadie atrás. Trabajando a favor de un municipio más cohesionado e igualitario.



GARAPEN EKONOMIKOA

Impulso a la economía urbana

Hiri ekonomia indarberritzen jarraitzea, etorkizunera begira lanean jarraitzeko, Tolosak duen ehuna sendotuz, sinergia berriak bultzatuz, proiektu berriei bidea emanez.

Continuar con la revitalización de la economía urbana para seguir trabajando hacia el futuro, consolidando el tejido existente en Tolosa, impulsando nuevas sinergias, dando paso a nuevos proyectos.



JASANGARRITASUNA ETA ENERGIA TRANTSIZIOA


Sostenibilidad y transición energética

Klima aldaketaren erronka globalari tokikotasunetik erantzutea, neurriak hartuz energia berriztagarrien eta trantsizio energetikoaren alde, eguzki plaka berriak eta udal eraikin zein kale argiterian led teknologiadun argiak jarritz.

Responder al reto global del cambio climático desde lo local, tomando medidas a favor de las energías renovables y la transición energética, incorporando nuevas placas solares y luces con tecnología led en edificios municipales y alumbrado público.

INDARTU DIREN ALORRAK

Udal sail guztien aurrekontua mantendu da eta batzuk handitu egin dira, hain zuzen, Gizarte Zerbitzuetakoa, Garapen Ekonomikokoa, Kulturakoa eta Berdintasunakoa, Tolosa sozialago, berdinzaleago, ekonomikoki indartsuago eta kulturalki biziago baten alde.



Gizarte ongizatea *Bienestar social*

3,2 milioi
(200.000 € gehiago)

Tolosako Udalak apustu irmoa egiten du gizarte politiken alde, desberdintasun sozialei aurre egin eta gizarte kohesioa bermatzeko. Bide horretan, azken urteotan hainbat zerbitzu indartu dira, besteak beste, etxez etxeko laguntza zerbitzua eta familiei bideratutako programak, eta aurten, Abegi etxean bazterkeria egoeran dauden pertsonak gau eta egunez artatzeko zerbitzu integral berria jarriko da martxan.

Berdintasuna *Igualdad*

340.000 €
(80.000 € gehiago)

2023an, ANDRAGORA Tolosaldeko Emakumeen Etxeak atek zabalduko ditu eta berariazko aurrekontua izango du Emakumeen Etxeko zerbitzuak eta jarduerak aurrera eramateko. Emakumeen Etxea berdintasunaren alde lanean jarraitzeko tresna garrantzitsua izango da.



Reforzar los Servicios Sociales prestados; la apertura de ANDRAGORA la Casa de las Mujeres de Tolosaldea para dar pasos hacia una Tolosa más igualitaria y feminista; impulsar el proyecto ELIKER para el desarrollo futuro de la cadena alimentaria y la economía urbana y promover la actividad cultural para una Tolosa culturalmente vivida y dinámica, objetivos de este año 2023.

Garapen ekonomikoa *Desarrollo económico*

1.200.000 €
(230.000 € gehiago)



Hiri-ekonomia indarbertzen jarraitzea 2023ko lan-ardatz nagusietako bat da, merkatarizari, ostalaritzari, azokei eta turismoari lotuta, jarduera ekonomiko berriak eta kalitatezko enplegua sustatzeko.

ELIKERek, Kalitatezko Elikaduraren Zentroak, garrantzi berezia izango du, eta ekindako bideari jarraipena emango zaio. Horrez gain, larunbateroko azokak eta azoka bereziak indartzen eta proiektu berriak martxan jartzen ere jarraituko du Udalak, lehen sektoreari zein merkatarizari, gastronomia sektoreari eta industria-ri lotuta, ELIKER zentroaren 2023ko Ekintza Planaren eskutik.

Kultura eta nortasuna *Cultura e identidad*

3.700.000 €
(74.000 € gehiago)



Tolosa kulturalki bizi handiko herria da eta herriak berezkoa duen berezitasuna, erreferentzialtasuna, herri-bizitasuna eta kultur jarduera babestu eta sustatzea da Udalaren helburua, Tolosa bizi baten alde.

Horretarako, besteak beste, laguntza berriak sortu dira, esaterako, Olentzeroren Basoa ekimena edo ToloFolk jaialdia sustatzeko eta, bestetik, Buruhandi eta Erraldoiak jabetzan erosteko, aurrerantzean, konpartsak kudeatu ditzan.

LÍNEAS DE SUBVENCIONES ESTE AÑO 2023



2

2023an Udalak urtero ematen dituen dirulaguntza guztiak mantenduko dira, kultur, kirol, gazteria, euskara edota gizarte alorrekoak, besteak beste. Horien artean daude, esaterako, kirol elkarteei urteroko jardueretako eskainitako laguntzak, gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloko elkarten jardueretarako edo mantentze-lanetarako laguntzak, hegoaldeko herrialde pobreen garapenerako lankidetzako proiektuak egiteko laguntzak, euskara ikasteko dirulaguntzak, kultur elkarteei zuzendutako laguntzak...

Horrez gain, azken urteetan martxan jarritako berriak ere mantenduko dira. Horien artean, azpimarratzekoak hauek:

Ayudas para el pago del alquiler y la rehabilitación y puesta en alquiler de las viviendas vacías; ayudas para la reactivación de la economía urbana y subvenciones para hacer más accesibles y sostenibles las viviendas y los edificios de Tolosa.

1/ Etxebizitza hutsak birgaitzeko dirulaguntzak

Tolosako Udalak etxebizitza hutsak eraberritu eta alokairuan jartzeko dirulaguntza lerroa martxan du. Helburua da etxebizitza jabeei erreformak egiteko erraztasun gehiago ematea eta etxebizitzak Bizigune programaren bidez alokairuan jartzea, herrian alokairu babestuko aukerak areagotzeko.

2/ Alokairua ordaintzen laguntzeko dirulaguntza

Laguntza lerro hau 2021ean abiatu zuen lehen aldiz Udalak eta 2022an ordenantza egokitu zuen laguntza ahalik eta tolosar gehienei zabaltzeko. Laguntza hau alokairuan bizi diren tolosarrei zuzenduta dago, eta gehienez ere, 300 euroko laguntza ematen da.

3/ Hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntzak

Laguntza programa honek helburu du herriko hiri-ekonomia osatzen duten sektore zein jarduerak babestu eta indartzea. Bi laguntza lerro jasotzen ditu programak: negozioetan belaunaldi aldaketa bermatzeko bata, Berriz Tolosa, eta negozio berriak abian jartzeko bestea, Ekin izenekoa.

4/ Etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak

Laguntza hauen helburua da Tolosako etxebizitza eta eraikinak irisgarriagoak eta jasangarriagoak izan daitezen sustatzea. 6 dirulaguntza lerro daude: irisgarritasuna hobetzeko, teilatuak berritzeko, egiturak sendotzeko eta fatxadak berritzeko batetik, eta etxebizitza pribatuetan energia eraginkortasunerako edo irisgarritasunerako obrak egiteko laguntzak, bestetik.

* Dirulaguntza lerro horietan guztietan LAGUNTZAK HANDIAGOAK DIRA negozioa, etxebizitza edo eraikina ALDE ZAHARREAN kokatuta badago, Tolosako hirigune historikoa babesteko.

INBERTSIO NAGUSIAK



469.000 €
Trantsizio energetikoa (Eguzki plakak eta led argiak).

676.000 € Udal eraikinen zaharberritzea.

Gizarte Zerbitzuetako bulegoak.



Emeterio Arrese, goiko solairua.




362.000 €
Urbanizazio lanak: Araba etorbideko plazak, autobus geltoki berria Zumarditxia proiektuaren baitan...

Zutani elkar-tearen lokala berritzea.



Hilerriko komunitan irisgarritasuna bermatzeko lanak.




300.000 €
Larramendiko auzo elkar-tearentzat lokala erosi eta atontzea.



100.000 €
Arkauten mendizaleen museo berria.



130.000 €
Proiektu berriak idaztea.



Antonio Lekuona eta Beotibar kaleak berrurbanizatzea.



Amarotzeko frontoiaren estalkia.



Lurramendi pasealekua berrurbanizatzea.

60.000 €
Alde Zaharra Biziberritzeko Plana.



30.000 €
Altueran aparkalekua sortzeko azterketa.



Belar artifiziala Berazubín.



Barrena kalea berrurbanizatzea.

TOLOSATZEN PARTAIDETZAN OINARRITUTAKO AURREKONTUAK

Herritarrekin elkarlanean Tolosa hobeto bat eraikiz

Partaidetzak gero eta indar eta garrantzi handiagoa du Tolosako Udalan eta txertatu eta errotua dago Udalaren eguneroko jardunean.

Partaidetza ildoari lotuta, aurten ere, Tolosatzen, partaidetzan oinarritutako aurrekontuak egin dira, herritarrekin bat eginda Tolosa hobeto bat eraikitzeko.

Partaidetza prozesua eraberritu egin du Udalak herritarrei erraztasunak emateko helburuarekin, partaidetza digitala ahalbidetuz, aurrez aurreko partaidetza bideak mantenduta. Helburu nagusia izan da herritarrei ahotsa ematea, elkarlanean lanean jartzea eta tolosarrak udal erabakietan inplikatzeko.

Prozesua bi faseetan garatu da. Lehen fasean, tolosarrek online eta aurrez aurre proposamenak egiteko aukera izan dute eta bigarren fasean, proposamenak teknikoki aztertu ondoren, bozketara pasatako ideia edo egitasmoen artean interesgarrienak lehenetsi ahal izan dituzte herritarrek.

Berrikuntzek harrera oso ona izan dute herritarren aldetik eta guztira 213 proposamen eta 673 boto jaso ditu Udalak.

Prozesuan tolosarrek lehenetsitako ideiak

Ideas más votadas en el proceso de presupuestos participativos

- 1. Patinaje zirkuitoa, patinetan modu seguruan ibili ahal izateko.**
Circuito de patinaje para poder practicar dicho deporte de forma segura.
- 2. Larramendi auzoan jolas kirol gunea.**
Zona ocio-deportiva en el barrio de Larramendi.
- 3. Apustu etxea ixtea.**
Cierre de la casa de apuestas.
- 4. Frontoi ireki-estalia Tolosako erdigunean pilotan aritzeko eta jolas-gune gisa.**
Frontón abierto-cubierto en el centro de Tolosa para jugar a pelota y como zona de juego.
- 5. Alde Zaharra biziberritzea.**
Revitalizar la Parte Vieja.
- 6. Haur parkeak hobetzea.**
Mejora de los parques infantiles.
- 7. Berazubitik Kondeaneko aldaparako konexioa hobetzea, baita eskailera mekaniko edo igogailu bidez ere.**
Mejora de la conexión entre Berazubi y Kondeaneko aldapa incluso por medio de escaleras mecánicas o ascensor.
- 8. Komunitate energetikoak eta eguzki plakak bultzatzea.**
Impulsar las comunidades energéticas y placas solares.
- 9. Gazte Topagune zerbitzua eta nerabeentzako aisialdi aukerak zabaltzea.**
Ampliar el servicio de Gazteen Topagunea y la oferta de ocio para adolescentes.
- 10. Azken agurren etxea. Hileta zibilak egiteko leku publikoa.**
La casa del último adiós. Un lugar público para la celebración de funerales civiles.



2023ko aurrekontuetan txertatutako herritarren proposamenak

Propuestas ciudadanas incluidas en el proyecto de presupuestos

- 1. Larramendiko jolas-kirol gunea sortzeko proiektua eta obra.**
Proyecto y obra para construir una zona recreativa deportiva en Larramendi.
- 2. Haur parkeak hobetu eta mota eta tamaina ezberdinak parkeen eskaintza zabaltzea.**
Mejorar los parques infantiles y ampliar la oferta de parques de diferentes tipos y tamaños.
- 3. Tolosako erdigunean, pilota eta jolas-gune gisa erabiltzeko frontoi ireki-estalia sortzeko aukera. Azterketa.**
Posibilidad de construir un frontón abierto y cubierto para jugar a pelota y como zona de juegos en el centro de Tolosa. Estudio.
- 4. Patinajea modu seguruan praktikatzeko eremua sortzeko azterketa.**
Estudio para la creación de un espacio para la práctica segura del patinaje.

El proceso participativo Tolosatzen para la elaboración de los presupuestos de 2023 ha incorporado la participación digital con el fin de dar mayores facilidades a la ciudadanía a fin de seguir construyendo una Tolosa mejor entre todas y todos.

Las novedades introducidas en el proceso han tenido muy buena acogida por parte de las y los tolosarras; se han recogido un total de 213 propuestas de las cuales, tras su análisis técnico, pasaron a votación 64 para que los y las tolosarras priorizaran sus 3 favoritas, recibiendo un total de 673 votos.



Aurrekontuen txostena ikusgai eta eskuragarri Udalaren webgunean

Consulta y descarga el dossier sobre los presupuestos en la página web del Ayuntamiento



www.tolosa.eus

AZKEN BERRIAK

Actualidad

TOLOSAKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEN EKINTZA PLANA 2023-2027 AURKEZTUTA

Tolosako Udalak 2021ean abiatu zuen plan hori osatzeko prozesua, eta lehen urrats gisa, diagnosi sakon bat egin zen, herriko hainbat eragile eta talderekin elkarlanean, egungo egoera aztertu eta ezagutzeko, bereziki gazteen ikuspegitik. Diagnosi horretako ondorioak oinarri hartuta, Ekintza Plana osatu da, 2027an indarraldia izango duena.

El proceso de elaboración del Plan de Acción de la Infancia, Juventud y Adolescencia ha sido un ejercicio de escucha centrado en las y los jóvenes y sus necesidades, con el objetivo de darles voz y protagonismo. El Plan recoge 5 ejes, 17 objetivos específicos y 69 acciones y se desarrollará entre 2023 y 2027. El principal objetivo es definir las intervenciones y servicios a prestar para garantizar el bienestar de niños y niñas, adolescentes y jóvenes de Tolosa.

Ekintza Planak helburu du Tolosako 0 eta 30 urte bitarteko haur, nerabe eta gazteen ongizatea bermatzeko egin beharreko esku-hartzeak eta eskaini beharreko zerbitzuak definitu eta zehaztea. Horretarako, guztira 5 ardatz, 17 helburu eta 69 ekintza zehaztu dira.

1. Haur, nerabe eta gazteen aisialdiaren erabileran esku-hartzea eta herriko espazioak eta ekipamenduak haur, nerabe eta gazteen beharretara egokitzea.

24 ekintzaz osatutako ardatza. Adibidez: nerabe eta gazteei zuzendutako kultur eskaintza diseinatzeko parte-hartze prozesu bat garatzea edo Gazte Topagunearen zerbitzua indartzea.

2. Parte-hartzea, herritartasuna eta komunitatearekiko lotura sustatzea.

Ardatz honen baitan, adibidez, administrazio-maila ezberdinen antolaketa eta funtzionamendua Tolosako nerabeei ezaugarazteko proiektu didaktikoa abian da.

3. Bizi estilo osasungarria, jasangarritasuna eta berdintasuna bultzatzea.

12 ekintzaz osatutako ardatza. Adibidez: menpekotasuna eragiten duten kontsumoen inguruko azterketa.

4. Emantzipazioa eta autonomia sustatzea: enplegua eta etxebizitza.

12 ekintzaz osaturiko ardatza. Adibidez: Emari co-working espazioa ekintzaitzarako indartzea eta gazteei zuzendutako alokairu sozialeko etxebizitzaren parkea handitzea.

5. Haur, nerabe eta gazteen saila indartzea, zabaltzea eta ikusaraztea.

9 ekintzaz osaturiko ardatza. Adibidez, haur, nerabe eta gazteen sailaren beharrik identifikatzea eta baliabideak zehaztea, ekonomikoak zein pertsonalak.

EMOZIOEN LANKETA ETA ZAINTZA OINARRI DITU TOLOSATZEN ESKOLA IREKIAREN 2023KO LEHEN SEIHILEKOAREN EGITARAUAK

2019an bere bideari ekin zionez geroztik, Tolosatzen Eskola Irekiaren jarduna egonkortu egin da eta antolatutako jarduerak eta ekimenetan parte-hartzea ere handituz joan da. Iazko ikasturtean, esaterako, 33 jarduerak egin ziren eta guztira, adin guztiak 1.150 herritarrek parte hartu zuten.

Azken urteotako ibilbideari erreparaturatuz eta arrakasta izan duten gaiak

aztertuz, 2023an jarraipena emango zaio emozioen lanketari, baita zaintza tailerrei ere. Horrez gain, gurasoei zuzenduriko atal berezi bat jasotzen du egitarauak eta, noski, momentuan momentuko erronkei ere erreparatzen die, hala nola: belaunaldiartekotasuna eta gizartearen zahartzea, euskararen egoera, trantsizio ekologikoa, errefuxiatuak...

Las emociones y el cuidado volverán a ser los ejes de la programación de 2023 de la Escuela Abierta Tolosatzen. Asimismo, el programa cuenta con un apartado especial de jornadas dirigidas a padres y madres y otro para reflexionar sobre los retos del momento: situación del euskera, transición ecológica, personas refugiadas..., entre otras actividades.

El programa completo se puede consultar en la web del Ayuntamiento.



9 AZOKA BEREZI EGINGO DIRA TOLOSAN 2023 URTEAN

Urtarrilean Fitur, Nazioarteko Turismo Azoka izan da Madrilan eta bertan aurkeztu ditu Tolosako Udalak 2023ko azoka berezien eta ekitaldi gastronomikoen datak, azpimarra berezia jarritaz lehen aldiz egin zen eta izugarritzko arrakasta izan zuen ESNEKI Euskal Herriko gazta eta esnekien azoka berezian.

Tolosa gastronomiari lotutako herria da eta goi mailako gastronomian errefente

ere bada. Duela hainbat mendetatik larunbatero egiten den asteroko azokaz gain, aurten, 9 azoka berezi eta ekitaldi gastronomiko hartuko ditu Tolosak abendura bitartean.

Horrenbestez, gazta eta esnekiak, txuleta, babarruna edota gozoak protagonista izango ditugu aurten ere, beste hainbat azoka bereziekin batera.

Azoka berezien egutegia Calendario de ferias especiales

XXVII. Zuhaitz Azoka
urtarrilak 28 enero

V. Ardo Zuriaren Azoka
apirilak 1 abril

Lore eta landareen azoka
maiatzak 13 mayo

Haragi: IV. Haragiaren eta Txingarraren Nazioarteko Topaketa
maiatzak 18-21 mayo

Mikologika:
XII. Mikologia jardunaldiak
urriak 19-21 octubre

Tolosa Goxua:
XXVIII. Gozoaren Azoka berezia
urriak 28 octubre

Esneki: II. Gazta eta esnekien azoka berezia
azaroak 4 noviembre


Babarruna: XXVIII. Tolosako Babarrunaren Jaia
azaroak 18 noviembre

XXIV. Gabonetako azoka berezia
abenduak 16 diciembre

TRABAJANDO PARA PROMOVER NUEVAS OPORTUNIDADES DE VIVIENDA

Siendo la vivienda un eje de trabajo prioritario y estratégico, el Ayuntamiento de Tolosa sigue trabajando para ofrecer a la ciudadanía nuevas oportunidades en materia de vivienda y lo hace en dos direcciones: por un lado, impulsando el desarrollo urbanístico con el fin de ampliar el parque de viviendas de Tolosa y, por otro, fomentando el alquiler, ofreciendo ayudas para el pago del alquiler y para la rehabilitación y puesta en alquiler de las viviendas vacías, con el fin de que todas las personas de Tolosa puedan desarrollar su proyecto de vida en el municipio.

Y bajo esas dos directrices estos últimos años se han puesto en marcha distintas iniciativas entre las que destacan las ayudas para incentivar la movilización de las viviendas vacías, la línea de subvenciones para facilitar el pago del alquiler o el proceso de construcción de 60 viviendas tasadas, 20 en San Cosme y San Damián y 40 en Iurramendi, a lo que, además hay que sumar la reciente concesión de la licencia de obra para la construcción de otras 46 viviendas, estas de modalidad libre, también en Iurramendi.



Etxebizitza hutsak birgaitzeko dirulaguntza

Laguntza lerro hau 2022an jarri da abian lehen aldiz eta bi helburu nagusi ditu: etxebizitza jabeei erreformak egiteko erraztasun gehiago ematea, Eusko Jaurlaritzaren laguntzak osatuz, modu horretara etxebizitza huts gehiago mobilizatzea lortzeko; eta bestetik, etxebizitzak Bizigune programaren bidez alokairuan jartzea, alokairu babestuko aukerak areagotzeko herrian, alokairu errentak merkatu-preziotik beherakoak izan daitezen.

Laguntza lerroa Tolosan alokairura bideratu nahi dituzten etxebizitza hutsen jabe diren pertsonen zuzendutakoa da eta 4.000 € arteko laguntzak eskaintzen ditu herrigunetik kanpo dauden etxebizitzetarako eta 8.000 € artekoak, berriz, etxebizitza Alde Zaharrean kokatuta badago.

Dirulaguntzak eskatzeko epea urte osora zabalduko da. Beraz, edozein momentutan eskaera egiteko aukera izango dute herritarrek.

Alokairua ordaintzen laguntzeko dirulaguntza

Laguntza lerro hau etxebizitzarako sarbidea zein esku-bidea bermatzeko Tolosako Udalak azken urteotan hartutako neurri nagusietako bat da. Legealdi honetan abiarazitako laguntza da eta iaz egokitzapenak egin ziren ordenantzaz tolosar gehiagok izan dezaten laguntza jasotzeko aukera. Diru-sarrera muga eta errentaren gehieneko kopurua handitu dira (1.000 euro arte) eta hartzaile gisa kolektibo berriak ere txertatu dira. Eskatzaileek, gehienez ere 250 euroko laguntza jasoko dute hilean, etxebizitza Alde Zaharrean kokatuta badago, 300 eurokoa.



Egilea: Muno

60 etxebizitza tasatu eraikitzeko bidean

Alokairua sustatzeko lan ildoarekin batera, Tolosako Udalaren lan ardatza da herriko etxebizitza parkea handitzea, eta horri lotuta, lehenasuna ematen dio etxebizitza babestuari.

Hori horrela izanik, etengabeko urratsak eman ditu Tolosan 60 etxebizitza tasatu eraikitzeko: 40 Iurramendin eta beste 20 San Kosme eta San Damian azpiesparruan.

Guztira hiru logelako 38 etxebizitza, bi logelako 19, eta mugikortasun murriztu iraunkorra duten pertsonentzat gordetako 3, bina logelakoak (etxebizitza egokituak) etxebizitza eraikiko dira eta etxebizitza guztiek izango dute garajea eta trastelekua.

Etxebizitza tasatuetan izena emateko epea jada amaitu da eta guztira ia 900 izen emate izan dira. Etxebizitza tasatuen zozketa datozen hilabetetan egingo da.

Etxebizitzen eraikuntzari lotuta, urtarrilean, Iurramendi eremuan 46 etxebizitza libre eraikitzeko obra lizentzia ere eman zuen Udalak. Etxebizitza horiek Iurramendi pasealekuko azpiesparruko 4. eta 5. lursailetan eraikiko dira eta dagoeneko hasi dira eraikuntza lanak.



Egilea: Sukia

Etxebizitza oinarrizko eskubide bat da eta ezinbestekoa da herritarrei erraztasunak eta aukera berriak eskaintzeko neurriak hartzea, eta helburu horrekin dihardu Udalak lanean

TRIBUNA

Alderdien iritzia



Zumarditxikia, bidea elkarrekin. Adostasun zabalago dago Zumarditxikia berreskuratzeko beharrezkin. Abiapuntuan adostasuna badago, aukera dago bidea elkarrekin egiteko.

Bi legealdi daramatzagu tolosarrekin proiektua lantzen. Tolosar orok izan du prozesuan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera. Hasieran adostu ziren Zumarditxikia berreskuratzeko helburu eta baldintzak, eta horiek oinarri hartuta landu da proiektua. Parte hartzeak badu eta izan du, beraz, garrantzia berezia prozesu honetan.

Azken asteetan garatutako proiektua gizarteratu dugu Tolosarrekin izan dezaten proiektua ezagutzeko eta iritzia emateko aukera. Tolosar guztien iritzia garrantzitsua delako guretzat.

Jasotako iradokizunekin berraztertuko dugu proiektua; eta ari gara, baita ere, aparkalekuaren gaiari irtenbidea emateko proposamen berriak lantzen, bizilagunekin elkarlanean. Beraz lankean jarraitzen dugu eta jarraituko dugu, herritar guztiak entzunaz.

Existe un amplio consenso en la necesidad de recuperar Zumarditxikia. Partamos del consenso para seguir trabajando, teniendo en cuenta la opinión de la ciudadanía. Revisaremos el proyecto realizado atendiendo a las sugerencias recibidas y seguiremos trabajando la alternativa de aparcamiento. Esa es nuestra hoja de ruta, seguir trabajando, sin prisa pero sin pausa, escuchando a la ciudadanía.



Udalak herritarrei informazio gardena eta kalitatezkoa ematea funtsezkoa da. Ematen den informazioa argia, zehatza, erabilgarria eta ulergarria izan behar du. Herritarrek ondorengo informazioa eguneratua izan beharko luke etengabe: udalarengandik jaso ditzakeen zerbitzuak eta diru laguntzak, martxan jarritako ekimenak eta proiektuak, hauen jarraipenaren berri, egindakoaren kontu ematea... Hau dena, udalaren web orrian era argi eta errazean jasota egon beharko luke eta sare sozialetan honen zabalpena egin beharko litzateke.

Honez gain, udal gobernua ekimen guztien berri maiztasun handiz bidaltzen ditu prentsara eta arrakal digitalari aurre egiteko, hiru hilean behin udal aldizkaria den Aleka argitaratzen du, berez, interes publikokoa den udal informazioa herritarrengana gerturatzeko.

Egiari zor, Aleka orain arte ez da izan herritarrei informazio erabilgarria eskaintzeko tresna. Alekak ez die herritarrei informazioa argia eta praktikoa, konpromisoen betetze maila eta egindakoaren kontu ematea era objektiboan eskaini. Propagandaren mugan kokatzen den informazio partziala eskaini du alea joan alea etorri.

Udal Gobernu honen "komunikazio estrategia" argi ikusten da 2023rako aurrekontuetan: 2018an publizitaterako 115.000€ aurreikusitako lekuan 2023rako 403.000€ aurreikusi dira. Atera kontuak...



Urtero onartzen ditugun Udalaren aurrekontuetan, Tolosarako nahi dugun hobekuntza eta aldaketa borondatea agertzen da. Partida ekonomikoak zehazten dira, eta hortik aurrera, proiektu horiek egia bihurtu daitezke lan egiten da. Ez dut lan erraza egiten. Udal-kudeaketa gero eta konplexuagoa da, eta, batez ere, oso motela.

A pesar de todo, los proyectos salen adelante: Laskorain kalea, Paper kalea, Ambulatoria, rotondas de Arramele y San Francisco, hierba artificial de Usabal, ayudas para el alquiler de viviendas para jóvenes, ayuda para rehabilitar viviendas cerradas, equipamientos en Amaroz, etc.

Otros proyectos, más complejos, serán realidad los próximos meses: Emakumeen Etxea; el espacio la Plaza Gorriti / Emperador / Sta María; el apeadero; la tercera fase de Usabal; Zumardi Txiki, siempre que se encuentre una alternativa al parking actual, viviendas en Yurreamendi y San Cosme.

2023ko aurrekontuetan jasotzen dira, halaber, Udaltzako urte horretarako dituen asmoak. Proiektu horietako batzuk urte honetan bertan gauzatuko dira. Beste batzuk hurrengoetan garatuko dira. Baina proiektu guztien artean, Alde Zaharra birgaitzea eta etxebizitza berriak sortzea dira gure lehentasunak.

AGENDA

Agenda osoa ikusgai: agenda.tolosa.eus

10 OTSAILAK
Tarara (HIKA Teatro)
 20:00etan, Leidorren

24 OTSAILAK
Manhattan Tour Café Quijano
 20:30etan Leidorren

03 MARTXOAK
Yarin: Jon Maya & Andres Marin
 20:00etan, Leidorren

10 MARTXOAK
El Candidato (TXALO produkzioak)
 20:00etan, Leidorren

24 MARTXOAK
Hobe Ixilik (TXALO produkzioak)
 20:00etan Leidorren

21 APRILAK
Ez naiz Dublín inoiz egon (TENTAZIOA produkzioak)
 20:00etan, Leidorren

25 MARTXOAK
Pirritx, Porrotx eta Marimotots (ordutegia zehazteko)

28 APRILAK
genErrorAntz (KIMUA dantza kolektiboa)
 20:00etan Leidorren

Sarrerak:
Leidorreko leihatilan
 — www.tolosa.eus/kultura
 — tickets.kutxabank.es

Editorea: Tolosako Udala
 Diseinu eta maketazioa: Dosges
 Inprimaketa: Gráficas Ibarra
 D.L.: SS-340/06

Kontsultatu
 Alekaren edukia
 zenu hizkuntzan:

Consulta el contenido
 de Aleka en
 lenguaje de signos:

HEMEN! >



MUGI TXARTELA

DAGOENeko ERABILGARRI

TOLOSAko HIRIBUSEAN.

ESKURATU ZUREA!



**Non eskatu behar
dut Mugi txartela?**

www.mugi.eus webgunean

Tolosaldea autobusetako
bulegoan (Barrena kalea, 3)

UDATEn

Abantailak:

- > **Ordaintzeko modu bateratua:** Txartel bakarra garraiobide guztietarako.
- > **Tarifa-sistema eta eremuak bereizteko sistema bateratuak:** Kostu berbera garraiobide ezberdinetan egindako bidaietarako, eta tarifa bateratuak eremu-aldaketaren bat barne hartzen duten ibilbideetarako.
- > **Tarifikazio progresiboa:** Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta merkeagoa bidaiaren kostua.
- > **Doako aldaketak:** bidaiaren garestiena bakarrik ordaintzen da.

* Hiribusa erabiltzeko txartel zaharraren erabilera martxoak 31 arte luzatuko da



Plaza Zaharra 6A
20400 Tolosa, Gipuzkoa
Tel.: 943 654 466
gobernantza@tolosa.eus

Jendurreko arreta:
Astelehenetik
ostiralera:
07:15 - 14:15

